

EASO POLITEKNIKOAREN INGURUMEN ALDARRIKAPENA

AURKIBIDEA

HITZAURREA

1. Erakundearen aurkezpena
 - 1.1. institutuaren kokapenaren deskribapena: mapa, argazkia...
 - 1.2. zerbitzu eta jardueren deskribapena: heziketa eskaintza
 - 1.3. parametro orokorrak: langile kopurua, instalazioen azalera
 - 1.4. erakundearen organigrama: nodo arteko sistema
2. Ingurumen politika eta kudeaketa-sistema
 - 2.1. Iraunkortasun politika
 - 2.2. Ezarritako kudeaketa-sistema: ISO 14001:2015
3. Ingurumen alderdi esanguratsuen deskribapena: alderdien urteko ebaluazioa
 - 3.1. ingurumen alderdi zuzenak
 - 3.2. zeharkako ingurumen alderdiak
4. Ingurumen Kudeaketa Programa: Ureko plana
5. Ingurumen jokabideen deskribapena: ingurumen jokabideen bilakaera
 - 5.1. kontsumoen bilakaera
 - 5.2. hondakinen bilakaera
 - 5.3. Karbono aztarna
6. Legediaren betetze maila.

HITZAURREA

2001etik Easo Politeknikoa LHII ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin konprometituta ari da lanean. ISO 14001 ingurumen kudeaketa sistemen ziurtapena eta ISO 9001 kalitatearen kudeaketa sistemen ziurtapena dauzka. Eta gainera Donostiako ESKOLA AGENDA 21eko aitzindarietako bat da, zein eskola eremurako Udaletxearen ingurumen programa baita, eta 2014tik Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria ere badauka.

Bere ingurumen jarduera iritzi publikoari eta erakundeko alde interesatu guztiei hedatzeko beharraz jabeturik, dokumentu hau argitaratu du. Bertan bere kudeaketa sistemari eta ingurumen izaerako, lege eskakizunen eta beste eskakizunen betebeharrek konplitzeari buruzko informazioa jasotzen da.



1. Erakundearen aurkezpena

- 1.1. institutuaren kokapenaren deskribapena: mapa, argazkia...
- 1.2. zerbitzu eta jardueren deskribapena: heziketa eskaintza
- 1.3. parametro orokorrak: langile kopurua, instalazioen azalera
- 1.4. erakundearen organigrama: nodo arteko sistema

1.1. Institutuaren kokapenaren deskribapena



Donostiako (Gipuzkoa) EASO Politeknikoa Amara aldean dagoen institutua da, zeinek gaur egun hiriko ikasleak jasotzen dituen, baina nagusiki probintziako beste herrietakoak. Hirigunean kokatzeak eta Euskotren, Renfe eta autobusen geltokietatik nahiko gertu egoteak gure ikasle izan litezkeenentzat erakargarri bilakatzen du. EASO Politeknikoa derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako ikastetxea da, sare publikokoa eta, beraz, eragiten dioten legeetatik eratorzen zaizkion erantzukizun eta betebeharrak eta LH Sailburuordetzan sortzen diren lanbide heziketako planak bere gain hartzen ditu. Eskola Kidegoaren jarduera pertsonal eta kolektiboak zuzentzen dituzten nortasun printzipio batzuk sustatzen ditu. Hauek, era berean, bere heziketa eskaintzaren garapen pedagogiko eta kurrikular egokiaren aldeko ekintzak bideratzen dituzte, inguru sozioekonomikoaren lan-eskakizunekin bat etorriz eta heziketako bizikidetasuna Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialetan eman dadin konpromiso argiarekin.

2007tik prozesu bidezko kudeaketa landu zen eta ondore, 2010ean, sistema integratura pasatu zen, ikastetxeko prebentzioaren eta ingurumenaren kudeaketan sartuz eta oso lege-eskakizun zorrotzak betez, zeintzuk beren auditoretzen bidez ikastetxe seguru eta iraunkorraren izaera baieztatzen duten.

1.2. Zerbitzu eta jardueren deskribapena: heziketa eskaintza

Hasierako formakuntza, Eskaintza partziala eta Enplegurako formakuntza ematen dira.

- Hasierako formakuntza: 20 ziklo eskaintzen dira, 7 Erdi Mailakoak eta 13 Goi Mailakoak.
- Eskaintza partziala:
Osasun larrialdiak.
Automatizazio eta robotika industrialia.
- Enplegurako formakuntza:
Pertsona langabeentzako ikastaroak.
Pertsona langileentzat, autonomoak, ikastaroak..

1.3. Parametro orokorrak: langile kopurua, instalazioen azalera

PERTSONAK /URTEA	2014	2015	2016	2017
Irakasleak	129	132	140	151
Langile EZ irakasleak	18	18	18	18
PERTSONAK GUZTIRA				
Langileak	147	150	158	169
Hasierako formakuntza	960	972	981	1069
Eskaintza partziala	201	150	122	50
EF-Hobetuz ikastaroak				346
Ikasleak	1161	1122	1103	1465
PERTSONAK GUZTIRA	2469	1272	1261	1634

Instalazioen azalera: Easo Politeknikoa 12.900 m²ko azalera osatzen du.

1.4. Erakundearen organigrama: nodo arteko sistema



2. Ingurumen politika eta kudeaketa-sistema

2.1. Iraunkortasun politika

Easo Politeknikoak, bere erantzukizun sozialaz jabeturik, uste du beharrezkoa dela gure erakundearen kudeaketaren baitan iraunkortasuna barneratzea eta sustatzea, ingurumena babesteko baliabideen erabilera jasangarria eginez; klimaren aldaketa arintzea eta horretara egokitzea eta bioaniztasuna sustatuz; kutsadura aurreikusiz eta ikastetxeko jarduerak ingurunearengan eta gure zerbitzua eskaintzen diegun pertsonengan, beste ikastetxeengan, organizazioengan eta erakundeengan daukan inpaktua arintzen saiatuz; horretarako Nazio Batuek (Agenda 2030) proposatutako garapen iraunkorrerako helburuetan oinarritzen gara.

Horregatik, honetarako konpromisoa hartu dugu erakunde gisa:

- Izaera kritikoa izango duten pertsonak prestatzea, beren garapen pertsonala ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-iraunkortasunaren ikuspegitik hartuko dutenak.
- Easo Politeknikoko komunitatea ingurumen jokabideen hobekuntzan hezteko, prestatzea eta sentsibilizatzea bere jardun profesionalerako.
- Ikastetxearen ingurumen kudeaketa-sistema sustatu eta hobetzea.
- Gure arrasto ekologikoa murriztea.
- Gure ingurumen aldarrikapena komunikatzea.
- Ikastetxeari aplikagarri zaizkion ingurumen eskakizunak (legezkoak eta bereak) betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- Iraunkortasun arloan lankidetzatza sustatzea gure erakundearen eta beste ikastetxe eta erakundeekin..
- Gizarte desberdintasunen murrizketan laguntzea eta gure erakundearen solidaritate balioak sustatzea.

- Ikastetxeko pertsonen osasuna hobea dadin ahalegintzea.
- Elkarbizitza hobea sustatzea, kalteberatasun, desgaitasun, nagusikeria eta genero desberdintasun egoerekiko sentiberatasun berezia adieraziz.
- 17+1 GIHaK (garapen iraunkorrerako helburuak) sustatzea: Hizkuntza eta kultur aniztasuna, kulturaren defentsan eta kultura eta hizkuntza minorizatuaren mantentzean eta babesean konpromisoa hartuz.
- Gurearekiko desberdinak diren kultura eta errealitateetatik etorritako pertsonen inklusio ekonomiko-sozialaren alde lan egitea.
- Erakundearen konplimendu eta etika prozedurak garatzea zerbitzu publiko ona eta kalitatezkoa sortu ahal izateko, ondo egindako lanarekin pertsonen engaiamendua bilatuz.
- Belaunaldien orekaren alde lan egitea, egungoek datozenak kontuan hartuz, gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren narriadura txikiagotuz.
- Halaber, izaera kritikoa izango duten pertsonak prestatzea, beren garapen pertsonala ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-iraunkortasunaren ikuspegitik hartuko dutenak.

2.2. Ezarritako kudeaketa-sistema: ISO 14001:2015

Kudeaketa-Sistema Integratua (KSI) daukagu, zeinek honakoetarako etengabeko ahalegina agerian jartzen duen:

- Sistemaren eragingarritasuna eta gure lana etengabe hobetzea, gure erakundearen kalitatearen, ingurumenaren, segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa-jardueran.
- Gure jarduerari aplikagarriak zaizkion lege-eskakizunak eta geure eskakizuntzat hartutakoak betetzea.
- Easo Politeknikoarentzat barruan ala kanpoan burutzen diren jardueretan, langileen segurtasuna eta osasuna erasan dezaketen kutsadura eta kalteak aurreikustea.
- Easo Politeknikoko Kidego osoa heztea, prestatzea eta sentsibilizatzea ingurumen jokabidearen hobekuntzan eta ingurumen iraunkorrerako irizpideen ezarpenean, bere bizitzaren alderdi guztietan.
- Ikastetxeko helburuen konplimendua ezarri eta ikuskatu, Kudeaketa-Sistema Integratu honen baitan.
- Ingurumenarekiko konpromisoa hedatzea, Ingurumen Kudeaketa Sistemen Ziurtapena duten zerbitzu-enpresa eta hornitzaileekin lan egitea lehenetsiz .

Etengabeko hobekuntza hau Ingurumenaren urteko Planean zehaztutako helburuak planifikatzearen bidez gauzatzen da.

Ebaluatzeko, gure ingurumen-jarduera baieztatzeko eta ISO 14001:2015 berritzeko asmoz, urtero ONDOANen barne-auditoretza eta AENORen kanpoko beste bat egiten dira.

3. Ingurumen alderdi esanguratsuen deskribapena: alderdien urteko ebaluazioa

Easo Politeknikoak ikastetxean burutzen den jardueraren ondorioz sortzen diren ingurumen alderdiak identifikatu, ebaluatu, berrikusi eta erregistratzeko metodo bat dauka. Hau ingurumenean inpaktu aktibo esanguratsua dutenak eta txikiagotu ditzakegunak zehazteko xedeaz egiten da eta baita ingurune-alderdi elkartuak ere, beren bizi-zikloa kontuan hartuz.

Definizioak:

Ingurumen alderdia (IA): ingurumenarekin interakzioa eduki dezakeen erakundeoko jardueren, produktuen edo zerbitzuen elementua.

Zuzeneko ingurumen alderdia: erakundeak erabat kontrolatzeko aukera daukan hura da.

Zeharkako ingurumen alderdia: hirugarrenekin edukitzen den elkarrekintzatik sortua eta erakundeak partzialki kontrolatzen duen hura da.

Bizi zikloa: erakundearen jardueren, produktuen edo zerbitzuen ondoz ondoko edo elkarrekin erlazionatutako etapak.

Ingurumen inpaktua: ingurumenaren edozein aldaketa, izan kaltegarri ala onuragarri, erakunde baten ingurumen alderdien erabateko emaitza edo emaitza partzial gisa.

Alderdien ebaluazioa:

Ingurumen alderdien ebaluazioaren xedea beren eragina txikiagotzeko neurriak hartzen laguntzea da, ebaluazio-adierazleen (parametroak eta irizpideak) emaitzen arabera.

Easo Politeknikoaren ingurumen alderdiengan egoera normaletan gertatzen diren identifikazioa eta ebaluazioa adierazten dira ondoko tauletan.

a. kontsumoak

KONTSUMOAK	INPAKTUAK	KONTSUMOAK	INPAKTUAK	KONTSUMOAK	INPAKTUAK
Elektrizitatea*	Baliabide naturalak agurtzea Berotegi-efektuko gasak areagotzea Klima aldaketa	Altzairua eta metakrilatoa	Garraioa: Erregai fosilen kontsumoa, Airearen kutsadura, zarata eta BEGen isurketa. Hondakinak sortzea	Produktu disolbatzaileak, bernizak kola egurra*	Garraioa: Erregai fosilen kontsumoa, airearen kutsadura, zarata eta BEGen isurketa. Hondakinak sortzea
Gasak*		Taladrina*		Produktu kimiko laboratorioak	
Ura*		Industriako olioak		Desinfektatzailea (glutaraldehidoa)*	

Papera		Aluminioa		Garbiketa produktuak
Egurra		Silizea		Tonerra
				Fluoreszenteak

* Ebaluazioan esanguratsuak izan diren alderdiak

b. hondakinak

HONDAKINAK	INPAKTUAK	HONDAKINAK	INPAKTUAK	HONDAKINAK	INPAKTUAK
Papera eta kartoia	Kutsadura Zabortegean uztea:	Silize kristalizatua*		Industriako olioak	Zabortegean uztea:
Txatar metalikoa	lurzoruaren okupazioa, usain	Glutaraldehidoa*	Zabortegean uztea:	Produktu kimiko laboratorioak	lurzoruaren okupazioa, usain
Fluoreszenteak	txarrak, lixibatuak eta BEGen isurketa.	Produktu disolbatzaileak, bernizak kola egurra	okupazioa, usain txarrak, lixibatuak eta BEGen isurketa.	Sanitario infekzioso ez zehaztuak*	txarrak, lixibatuak eta BEGen isurketa.
Egur hondakinak*	Zabortegeira garraioa: Erregai fosilen kontsumoa, airearen	Material xurgatzaile kutsatua	Zabortegeira garraioa: Erregai fosilen kontsumoa, airearen	Ontzi metaliko kutsatuak*	Zabortegeira garraioa: Erregai fosilen kontsumoa, airearen
Ekipamendu elektronikoak eta	kutsadura, zarata eta BEGen isurketa		kutsadura, zarata eta BEGen isurketa.	Ontzi plastiko kutsatuak *	kutsadura, zarata eta BEGen isurketa
Tonerra	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	Taladrina agortua			

* Ebaluazioan esanguratsuak izan diren alderdiak

Hondakin arriskutsuak: hondakin arriskutsu guztiak kudeatzaile espezializatu batek tratatzen ditu. Urtean bi bilketa egiten dira eta onarpen dokumentuak, kontrol eta jarraipen dokumentuak eta sortutako kopuruak erregistratzen dira.

Hondakin ez arriskutsuak: hondakin ez arriskutsuetako batzuk kudeatzaile espezializatu batek tratatzen ditu (egurra, txatarra) eta beste batzuk hiri-hondakin gisa kudeatzen dira (ontzi ez kutsatuak, errefusa, papera) edo garbigunera eramaten dira (tonerra, fluoreszenteak). Konpostagailu bat jarri da gure jardueran sortutako hondakin organikoa uzteko.

c. isurpenak eta igorpenak

ISURPENAK	INPAKTUAK	IGORPENAK	INPAKTUAK
Saneamendu-sarera isurtzea	Inguru-hartzaileren urren	Zarata kanpora	Airearen kalitatea

	kalitatea txikiagotzea. Isurketak gizakiei, ekosistemei erasan diezaioke		txikiagotzea
Euri-sarera isurtzea	Lurzoruaren eta lurpeko eta lurrazaleko uren kutsadura	Galdara Gas naturala CO2a	Berotegi efektua areagotzea. Airearen kalitatea aldatzea

Saneamendu-sarera isurtzea: etxeko ohiko hondakin-urak ez direnak, B mota, isurtzeko baimena.

Igorpenak: soldadura tailerra, pintura kabina, laborategi kanpaiak, X Izpiak, foku desklasifikatuak dira beren funtzionamendu orduak ikastetxeko funtzionamendu ordu guztien % 5 < izateagatik.


7. Ingurumen Kudeaketa Programa: Ureko plana

Urteko Planean Easo Politeknikoa 2017-2018 ikasturtean honako helburuak lantzen ari da:

HELBURUAK
1. Ikasleek eta ikastetxeko langileek hondakinen ontziak zuzen erabil ditzatela.
2. Karbonoaren Arrastoa kalkulatzeko erreminta sortzea Zubiri-Manteoren lankidetzarekin.
3. Erakundearen Karbono Arrastoa txikiagotzea.
4. Ikastetxeko langileak eta ikasleak kultur-aniztasunaz sentsibilizatzea (Agenda 21).
5. 18. GIHa sortzea eta Nazio Batuen 17 GIHen proposamena hedatzea.
6. Ingurumen Aldarrikapena egitea eta EASO POLITEKNIKOAREN ingurumen-politika idazten laguntzea.
7. Agenda 21 ziurtagiri jasangarria berritzea lortzea.
8. Kontsumo elektrikoa % 3 txikiagotzea.
9. Igeltsua duen silize hondakina % 5 txikiagotzea.

5. Ingurumen jokabideen deskribapena: ingurumen jokabideen bilakaera KONTSUMOEN BILAKAERA


Ura




Gasa




Elektrizitatea




Papera



Tonerra



Egur disolbatzaileak




Erabili den papera birziklatua da eta, gure ikasleekin lana nagusiki IKTen bidez egiten dugunez, bere kontsumoa txikiagotzen ari da. Inprimagailu kopurura txikiagotzearekin batera toner kontsumoa ere nabarmen jaitsi dugu.

SORTUTAKO HONDAKINEN BILAKAERA

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK

EGUR HONDAKINA




TXATARRA




2017an sortutako egur hondakinak areagotu egin dira, obregatik eta departamentu batzuen zaharberritzeengatik.

HONDAKIN ARRISKUTSUAK

OSAGAI ELEKTRONIKOAK




TALADRINA




Taladrina hondakina jaitsi egin da, tailerlean erabili den dosifikagailua egoki baliatzeagatik.

Osagai elektronikozko hondakinei dagokienean datu desberdina zera da, 2016an ikastetxean biltegitua zegoen zaharkitutako eta hondatutako materiala atera egin zela. 2017an ez da bilketarik izan.


ONTZI METALIKOAK



MATERIAL XURGAGARRIAK



KUTSAGARRIEN PLASTIKOZKO...



Hondakin hauek aregotu egin dira. Arrazoietako bat zurgintza tailerretan egin den zaharkitutako pintura-ontzien aparteko garbiketa izan da. Kopuru hauek txikiagotzeko neurriak hartuko ditugu, tailerretako eta laborategietako erabiltzaileen ingurumen-jokaerak hobetuz.


SILIZE KRISTALIZATUA




LABORATEGIKO HONDAKINAK



GLUTARALDEHIDOAK



SANITARIO EZ INFEKZIOSOAK



Glutaraldehidoaren gehiegizko areagotzea izan da, tailerrean egindako praktika kopurua handitzeagatik eta Ahoz eta Hortz Higieneko Gelan materiala berriztatu delako orain artean egin denarekiko baino denbora txikiagoan.

GURE KARBONO ARRASTOA

Gure karbono arrastoa neurtzen ari gara eta horretarako ondorengo datuak hartzen ditugu kontuan:

KONTSUMOAK	2014	2015	2016	2017
Elektrizitatea (kWh)	332 570	337 591	251 767	283 318
Gasa (kWh)	342 317	398 873	307 105	400 08
Ura (m3)	3 900	4 755	3 035	3 443
Papera (Kg)	3 964	3 800	3 891	2 994

BESTE KONTSUMOAK

	2014	2015	2016	2017
TONERRA	82	203	41	15

Hobetzeko asmoz, ikastetxeko langile irakasle eta ez irakasleen mugikortasunari buruzko ikerketa egiten ari gara, gure arrastoaren kalkuluan 3 Irismenari datu hau gehitzeko. Gure helburua 2017-2018 ikasturtean bertan gure karbono arrastoa txikiagotzea da.

Gaur egun Zubiri-Manteoko informatika departamentukoekin batera proiektu bat lantzen ari gara, ikastetxeetan, erakundeetan eta zerbitzu-enpreetan Karbono Arrastoa kalkulatzeko izango den web-aplikazio bat eta app mugikor erabilerraz bat sortzeko.



6. Legediaren betetze maila: Legoa

Easo Politeknikoak Legoa bidez lege eskakizuna eta beste eskakizunak betetzen dituela baieztatzen du urtero eta beraien jarraipena egiten du gutxienez urtean behin (iraila). Eguneratzeren baten edo aldaketaren baten ohartarazpena jasotzez gero, beronen baieztapena egiten da.